



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko azaroaren 16a

131. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusia premiatzen da Izadi Gutierrez Lizarraga adingabearen eskubideak ondoen babestuko dituen eta bere gurasoekin nahiz familia-ingurunearekin harremana manten dezan ahalbidetuko duten neurriak har ditzan, horretarako bere gurasoak etxetik hurbileko espetxeetara ekarrita. Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da unibertsitate-ikasketetarako beken eta laguntzen deialdi orokorrean hobetzen ahal diren zertzelada guztiak berrikus ditzan eta Espainiako Gobernuari beken gaineko eskumena eskualdatzea eska diezaion. Ángel Ansa Echeagaray jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun mentalari buruzko estrategia eta Osasun Mentalari eta COVID-19ari buruzko Ekintza Plan bat taxutu ditzan Nafarroako Osasun Zerbitzuaren baitan. Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du beharrezkoa dela Iruñearen hiriburutza agiriaren indarraldia mantentzea. Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da ikerketa-espeditente bat abiaraz dezan, Odol Bankutik Tuterako Ospitalera hemoderibatuak eta erreaktiboak garraiatzeko zerbitzua ematean ustez izandako irregulartasunak aztertzeko. Osoko Bilkuran izapidetzea (7. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Eskubide Sozialesko Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ezarri zenetik Nafarroak ustez izan duen aurrezki garbiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

G S A I L A:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako hautatu beharreko kide bat izendatzea (23. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusia premia-tzen da Izadi Gutierrez Lizarraga adingabearen eskubideak ondoen babestuko dituen eta bere gurasoekin nahiz familia-ingurunearekin harremana mantentzean ahalbidetuko duten neurriak har ditzan, horretarako bere gurasoak etxetik hurbileko espetxetara ekarrita.

GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusia premia-tzen baita Izadi Gutierrez Lizarraga adingabearen eskubideak ondoen babestuko dituen eta bere gurasoekin nahiz familia-ingurunearekin harremana mantentzean ahalbidetuko duten neurriak har ditzan, horretarako bere gurasoak etxetik hurbileko espetxetara ekarrita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

María Lizarraga (Burlata) eta Iñigo Gutiérrez (Algorta) presoen alaba da Izadi Gutiérrez Lizarraga.

2019an jaio zen Valentzian, eta harrezkero espetxean bizi izan da. Bere lehen urtea Picasent-eko amen moduluan egin zuen, eta orain Aranjuezeko espetxean bizi da gurasoekin. Pandemia dela-eta, 2020ko martxotik hona ia ez du kalera irteteko modurik izan.

Heldu den urtarrilaren 21ean hiru urte beteko ditu eta espetxetik irten behar izanen du, gurasoek han jarraituko duten arren. Hori guztia ikusita, argi dago aldentze hori zaila, eta are traumatikoa, izanen dela.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak, ikusita Izadi Gutiérrez Lizarragaren kasuan gertatzen diren inguruabar humanitarioak, eta kontuan hartuta edozein atxilotze nahiz espetxeratze molde pairatzen duten pertsonak babesteari buruz Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren printzipio-multzoa –Biltzar Nagusiak 1988ko abenduaren 9ko 43/173 Ebazpenean onetsi eta berretsia– eta hurren eskubideei buruzko 1989ko konbentzioan jasotakoa, bere kezka adierazten du neskatoak bizi duen egoera dela-eta, eta eskatzen du gurasoekin egoteko daukan eskubidea berma dadin eta ahal den neurrian haiekin bizi ahal izan dadin, familia-ingurunetik aldentu gabe.

2. Nafarroako Parlamentuak Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusia premia-tzen du neskatoaren eskubideak ondoen babestuko dituzten

eta bere gurasoekin nahiz familia-ingurunearekin harremana manten dezan ahalbidetuko duten neurriak har ditzan, modua emanen dutenak haren gurasoak haren etxetik hurbileko espetxeetara eramanak izatea.

3. Nafarroako Parlamentuak Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusiari eta Auzitegi Nazio-

naleko Espetxe Zaintzako Epaitegiari igorriko die erabaki hau, pertsona horiek haien zaintzapean eta tutoretzapean baitaude.

Iruñean, 2021eko azaroaren 5ean

Foru parlamentariak: Jabi Arakama Urriaga, Bakartxo Ruiz Jaso, Ainhoa Aznárez Igarza eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da unibertsitate-ikasketetarako beken eta laguntzen deialdi orokorrean hobetzen ahal diren zertzelada guztiak berrikus ditzan eta Espainiako Gobernuari beken gaineko eskumena eskualdatzea eska diezaion.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita unibertsitate-ikasketetarako beken eta laguntzen deialdi orokorrean hobetzen ahal diren zertzelada guztiak berrikus ditzan eta Espainiako Gobernuari beken gaineko eskumena eskualdatzea eska diezaion.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita unibertsitate-ikasketetarako beken eta laguntzen deialdi orokorrean hobetzen ahal diren zertzelada guztiak berrikus ditzan eta

Espainiako Gobernuari beken gaineko eskumena eskualdatzea eska diezaion.

Urriaren 20ko Osoko Bilkuran unibertsitate-beken gaineko politika orokorrari buruzko interpellazio bat jorratu genuen. Eztabaidan zehar, beka horien deialdietan hobekizun franko duten zenbait zertzelada agerian utzi ziren; esate baterako, atalase ekonomikoak, horietara bideratutako aurrekontua edo egutegia.

Azken hori da auzi kritikoenetako bat: ikasleek ikasturtearen hasieran eskatzen dute beka, eta ebazpena ez da iristen ikasturte horren amaiera arte. Adibidez, 2020-2021 ikasturterako unibertsitate-beken deialdia 2020ko urriaren 28an argitaratu zen, eta behin betiko ebazpena, 2021eko uztailaren 20an: urtebeteko itxaronaldia, emandako beka jaso ahal izateko. Egoera hori guztiz traumatikoa da laguntza horren premian dauden familientzat; hain traumatikoa non familia horiek ez baitaukate ez askatasunik ez ahalmen ekonomikorik beren seme-alabek unibertsitate-ikasketak egin ahal izateko.

Nafarroako Gobernuaren ikasketa-laguntzak eta -bekak ministerioak emandakoen osagarri izatearen ondorioz, epeak gehiegi luzatzen dira; izan ere, ministerioaren deialdia ebatzi bitartean, Nafarroako Gobernuak ezinezko du berea ebaztea.

Gaur egun, ministerioarekin partekatzen da beken gaineko politika. Zaila da zehatz kalkulatzeko zer alde dagoen nafarrek Estatuari egindako ekarpenaren eta beka bidez jasotzen dutenaren artean, baina gutxi gorabeherako erreferentzia modura har daiteke ezen beka-aurrekontuaren ehuneko 0,5 dela nafar ikasleentzat, nahiz eta

Nafarroak guztira ehuneko 1,6ko ekarpena egiten duen.

Gure ustez, horregatik, beka bat eskatzen duten nafar familia eta ikasleei zerbitzu hobea emateko beharrezko gertatzen da Nafarroak beken gaineko eskumen osoa har dezan, Foruaren Hobekuntzak jasotzen duen moduan.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du unibertsitate-ikasketetarako Nafarroako Gobernuak ematen

dituen laguntza eta beken deialdi orokorrean hobetzen ahal diren zertzeladak berrikus ditzan: zenbatekoak, epeak edo Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren deialdiaren bidez emandako zenbatekoak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du beken gaineko eskumenaren eskualdatzea eska diezaion Espainiako Gobernuari.

Iruñean, 2021eko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da osasun mentalari buruzko estrategia eta Osasun Mentalari eta COVID-19ari buruzko Ekintza Plan bat taxutu ditzan Nafarroako Osasun Zerbitzuaren baitan.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita osasun mentalari buruzko estrategia eta Osasun Mentalari eta COVID-19ari buruzko Ekintza Plan bat taxutu ditzan Nafarroako Osasun Zerbitzuaren baitan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2021eko azaroaren 18ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da osasun mentalari buruz-

ko estrategia eguneratu dezan eta Osasun Mentalari eta COVID-19ari buruzko Ekintza Plan bat taxutu dezan Nafarroako Osasun Zerbitzuaren baitan.

COVID-19aren pandemiak agerian utzi ditu, beste arlo askotan bezala, osasun sistema publikoan lehendik zeuden gabeziak, eta horiek agerian uzteaz gain areagotu ere egin ditu. Pandemia baino lehen osasun mentaleko arazoak zeuzkaten gaixoengan ikusi ahal izan dugu hori, baita herritarren artean ere oro har; izan ere, orain arte sekula ikusi gabeko konfinamendu eta isolamendu sozialeko neurriek areagotu egin dute antsietatearen, depresioaren, nahasmendu obsesibo-kompulsiboaren eta gisakoen intzidentzia.

Ezin da zalantzan jarri COVID-19aren pandemiak eragina izan duela osasun mentalean.

Arazo emozionalengatiko kontsulten kopurua igo egin da populazio osoan; gure ustez, ordea, haur eta gazteen kolektiboa izan da kaltetuena, zaharren kolektiboarekin batera. Gainera, larriagotu egin dira patologia mental ohikoena.

Osasun-laguntzako sareak gainezka egin du eta estres-egoeran dago; horren ondorioz, eta pandemiaren krisiak eragindako gizarte-egoerengatik, sintomatologiaren detekzioa berandutu egin da, eta horrek ezinbestean areagotzen du herritarren ondoeza.

Zerbitzu espezializatueta detektatzen ari diren ondorioak ohikoenak apatia eta motibazio eza izaten ari dira, bai eta koadro disejektivitateak ere, ospitalean eta ZIUetan ospitaleratuta egon diren artean nahiz zaharregan gaitasun kognitiboren eta plangintzarako nahiz sekuentziatorako gaitasunaren galera eta guzti sumatu direla.

Osasun mentalaren eta pandemiaren arteko loturari buruzko lehendabiziko metaanalisek jada erakusten dute areagotu egin dela depresioaren prebalentzia, orain arte ohikoa zena baino halako hiru gehiago. Antsietatea pandemia aurreko sasoiakoa baino halako lau handiagoa da, eta trauma osteko estresaren diagnostikoa, berriz, halako bost handiagoa.

Patologia orokorrak areagotzeaz gain, lehenagotik pairatzen zituzten pertsonengan okerrera egin dutela ikusi da.

COVID-19aren bost olatu igaro eta gero esan dezakegu osasun mentaleko arazoaren tsunami helduko dela, eta pandemiak eragindako olatu horiek baino askoz gehiago iraunen duela tsunamiak.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak Nafarroako Gobernuaren premiaz du:

1. Nafarroako Osasun Mentaleko Estrategia eta Osasun Mentalari eta COVID-19ari buruzko Ekintza Plana taxutu ditzan.

2. Osasun mentala gizatiartzeko eta duintzeko estrategia bat zertu dezan, langile soziosanitarioei horri buruzko prestakuntza ematea jasoko duena, arreta hobetzeko xedez, gaixoa eta haren familia pairatzen ari direnaren ulermenaz.

3. Oinarrizko Laguntza Psikologikoa gara dezan, PsicAp proiektua osorik ezarrita.

4. Haur eta Gazteen Osasun Mentala sendotu dezan, prebentzio eta detekzio goiztiarreko estrategiak ezar ditzan eta Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko profesionalen arteko komunikazio-guneak sor ditzan.

5. Osasun mentalean aditua den gaixoaren figura sor dezan, bere gaixotasuna ezagutzeaz gain beste batzuei gaixotasuna ulertzen eta horri aurre egiten lagundu baitiezaieke.

6. Lehentasuna du suizidioaren prebentzioa eta arazo horren ikusarazpena.

Suizidioa prebenitzeko planak egin beharra dago, Osasunaren Mundu Erakundea eskatzen ari denarekin bat.

7. Populazio-arrazionaltasunaren arabera egituratu dezan Osasun Mentala, halako moduan non sareak eta zerbitzuak gainjartzea ekidinen baita, baliabideak eskualdeen eta sektoreen arabera paratuko baitira eta Osasun Mentaleko sareko baliabide guztien koordinazio eta sinergiarako mekanismoak ezarriko baitira.

8. Itunpeko zentroen gaineko kontrola areagotu dezan, ratioei, langileen prestakuntzari eta instalazioei dagokienez.

9. Osasun Mentaleko sarearen erabiltzaileen eta haien familien kexak jasotzeko sistema bat sor dezan, Nafarroako Osasun Zerbitzuaren barruan babestuta senti daitezten saiatzeko.

10. Gaixotasun mental larria (eskizofrenia, nahasmendu bipolarra...) ikusgai egin dezan; hartara, sentsibilizazio-kanpainak eginen dira, baita Hezkuntzan ere, horiek zer diren herritarrei jakinarazteko, estigmatizazioa ekiditearren.

11. Dementzia nahiz bestelako gaixotasun neurodegeneratiboak artatzeko estrategia eguneratu dezan; hartara, Dementzien Diziplina anitzeko Unitatean sartuko da, neurologiarekin eta psikologiarekin lankidetzan.

12. Gaixotasun mentala eta adikzio-arazoak (patologia duala) dauzkaten pertsonen zuzendutako baliabideak gara ditzan; hartara, osasun mentaleko profesionalen eta erkidego terapeutikoen arteko lankidetzaren ezarriko da.

Iruñean, 2021eko azaroaren 11n

Foru Parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du beharrezkoa dela Iruñearen hiriburutza agiriaren indarraldia mantentzea.

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu beharrezkoa dela Iruñearen hiriburutza agiriaren indarraldia mantentzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu beharrezkoa dela Iruñearen hiriburutza agiriaren indarraldia mantentzea.

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko azaroaren 27an egindako bilkuran, 16/1997 Foru Legea onetsi zuen. Horren bidez, "Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiria" ezarri zen eta, horren ondorioz, Udalari osagarri berezi bat eman zitzaion, haren finantziario-araubide arruntaz gain.

Nafarroako Parlamentuko kiderik gehien-gehien babesarekin onetsi zen foru lege garrantzitsu hori: 44k aldeko botoa eman zuten, eta inork ere ez zuen aurka bozkatu. Adostasun zabal horren atzean joera orotako talde politiko ia guztiek aldiro egindako eskaera zegoen, aspalditik eskatzen ari baitziren Iruñeko hiriari, foru erkidegoko hiriburua den aldetik, tratamendu berezia eman zekion.

Premia horri gehitu behar zitzaion etengabea zela Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren arteko krisi instituzionala, eta horri konponbi-

dea eman beharra zegoela, kalte besterik ez baitzien egiten nafarrei, bi administrazioek eskumena zituzten esparru bateko zerbitzuak emateaz denaz bezainbatean.

Iruñeak hiriburu gisa duen berezitasuna egokiro dago adierazita aipatutako foru lege horren aitziñsolasean:

"Iruñeko hiria, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateko hiriburua denez, bertako Udalak berezitasun kualitatibo bat bereganatu du gainerako toki entitateen aldean, hiriko zerbitzu asko eta asko bertako biztanleek ezezik, egitatezko beste biztanle askok ere eskatu eta erabiltzen dituztelako: Iruñerria deitu eremu zabal horretako eta are Nafarroako beste tokietako biztanle mugikorrek eta bertako erroldan inskribaturik ez dauden egoiliarrek, Foru Komunitateko Administrazioak eta Estatuko Administrazioak Iruñean, Foru Komunitateko hiriburua izateagatik hain zuzen, dituzten zerbitzu publiko handi horiek erabiltzera hiriburura noizbehinka edo aldiro etortzen baitira".

Legea indarrean egon den hogeita lau urteotan, Iruñeko Hiriburutza Agiria gatazkarik eragin gabe aplikatu izan da, eta ez du auzitan jarri ez Nafarroako Gobernuan ez Iruñeko Udalean gobernu-ardurak izan dituen inolako alderdi politikok, zein ere zela bere joera politikoa.

Horregatik da ulertezina EH Bilduk iragarri izana, inolako hausnarketarik gabe eta alde aurretik nahitaezkoa den bezala inorekin hitz egin gabe, Gobernuko lehendakariarekin akordio bat lortu dela, xede duena, besteak beste, Iruñeko hiriari Hiriburutza Agiria ematen dion Foru Legea indargabetzea.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du beharrezkoa dela indarrean mantentzea 16/1997 Foru Legea, "Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiria" ezarri eta, horren ondorioz, Udalari haren finantziario-araubide arruntaz gain osagarri berezi bat ematen diona.

Iruñean, 2021eko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da ikerketa-espeditente bat abiaraz dezan, Odol Bankutik Tuterako Ospitalera hemoderibatuak eta erreaktiboak garraiatzeko zerbitzua ematean ustez izandako irregulartasunak aztertzeko.

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 15an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osoko Bilkuran izapidetu dadin Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita ikerketa-espeditente bat abiaraz dezan, Odol Bankutik Tuterako Ospitalera hemoderibatuak eta erreaktiboak garraiatzeko zerbitzua

ematean ustez izandako irregulartasunak aztertzeko. Mozioa 2021eko azaroaren 12ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 13ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzko (10-21-PES-00233). Hori dela eta, hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Aurreko legegintzaldian, Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzearekin batera, Nafarroako Gobernuaren departamentuek hizkuntza planak egiteko prozedurari ekin zioten. Gobernu berria osatzearen ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen egitura berria ezarri zen Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariak abuztuaren 6an emandako 22/2019 Foru Dekretuaren bidez. Halatan, berriz ekin zitzaion hizkuntza planak taxutu eta onesteari.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuarena ekainaren 18ko 94/2020 Foru Aginduaren bidez onetsi zen.

Egindako galderei erantzunez, departamentuaren hizkuntza plana garatzeko egin behar izan diren ekintza eta lan batzuk zehaztuko ditugu, hasteko.

Plan horren ezarpena egin ahal izateko, 4. puntuari zehaztutako jarraibideei heldu diegu. Antolamenduaren eta jarraipenaren egitura.

Horretarako, departamentuak 4 teknikari eta departamentuaren hizkuntza planaren arduradun izanen den pertsona bat izendatu ditu.

Lehenengo bilera bat egin zen plana aurkezteko, eta, gero, zenbait bilera tekniko ere egin ziren departamentuak izendatutako pertsonen eta Euskarabideak hautatutako artean, planaren garapenari eta ezarpenari buruzko aholku- eta akonpainamendu-lanak egiteko.

Departamentuaren eta Euskarabidearen artean etengabeko lankidetzat dago plana implementatzeko.

Horretaz gainera, departamentuen arteko batzorde teknikoaren bilera bat programatuta dago azarorako.

Departamentuko hizkuntza planaren ezarpenari diharduten pertsonen prestakuntza jaso dute 2020ko azaroaren 4an eta 5ean.

Plana garatzeko, besteak beste honako unitate hauekin elkarlanean ari gara:

- Departamentua (planaren arduradunak, koordinazio-teknikariak, idazkaritza teknikoak, kabine-tea)
- Euskarabidea (Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua-Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua)
- Komunikazio Zerbitzua-Gobernuaren Eledu-naren Bulegoa
- Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia

Lehenengo galderaren erantzuna:

– Zertan dago Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren hizkuntza planaren garapena? Zein da departamentu honetan ezarri-

tako sei helburuen baitan zehaztu diren jarduketa ildoetako bakoitza betetzeko epea?

Jarraian, honako hauek zehaztuko ditugu: hizkuntza planaren jarduketa-ildoak, arduraduna eta ezarritako helburuen betetze-egoera.

1. helburua: lehenasunezko unitate organikoetan hizkuntzaren derrigortasuna ezartzea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Lehenasunezko unitateak identifikatzea derrigortasunari dagokionez	Departamentua eta Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua (EAPGZ)	Egina
Plantilla Organikoan sartu beharreko lanpostu elebidunen kopuruari buruzko txosten-proposamena egitea	EAPGZ eta FPZN	Egina
Balorazioa egin ondoren, txostena Funtzio Publikora igortzea, sindikatuekiko negoziazioa hasteko	Departamentua	Egina
Proposamena negoziatzea Funtzio Publikoaren Negoziazio Mahaian	Departamentua, Euskarabidea eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia	Datozen hilabeteetan
Sindikatuakiko negoziazioaren ondoren, hizkuntza-eskakizuna esleitu beharrekoa duten lanpostuak zehaztea	Departamentua, EAPGZ eta FPZN	Datozen hilabeteetan
Hizkuntza-eskakizuna esleituta daukaten lanpostuei buruzko txosten teknikoak egitea	EAPGZ	Datozen hilabeteetan
Txosten teknikoak aztertu ondoren, behin betiko onestea Plantilla Organikoan hizkuntza-eskakizuna eduki beharreko lanpostuak	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Lanpostuen proposamena Funtzio Publikora igortzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan

Departamentuak, Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzuekin lankidetzan, derrigortasuna dela-eta lehenasunezkoak diren unitateak identifikatu ditu.

Ondoren, Departamentuak lanpostuen proposamen bat egin du, identifikatutako lehenasunezko unitateei dagokienez. Proposamen hori

EAPGZra bidali da, aholkularitzarako eta lanpostuen egokitasuna egiaztatzeko.

Jarraian, lanpostu-proposamenerako txosten teknikoak egin dira, eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari igorri zaizkio, berrikus ditzan.

2. helburua. Departamentukoak izanik lehentasunezko unitate organikoak esleitutakoak diren langileei euskara-prestakuntza eskaintzea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Prestakuntza Atalari hizkuntza eskakizunen behin betiko proposamena igortzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Euskarazko Prestakuntza eta Egiatzatze Atalari eskatzea Ikaskuntza eta Hobekuntza Plan bat taxutu dezan	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Hizkuntza-eskakizuna esleitu ez zaien langileen komunikazio-premiak aztertzea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiatzatze Atala	Datozen hilabeteetan
Departamentuari ikaskuntza eta prestakuntza plan bat aurkeztea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiatzatze Atala	Datozen hilabeteetan
Prestakuntza plana inplikatuaren premien arabera egokitzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Plana onestea eta langileen prestakuntza hastea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Ikaskuntza eta prestakuntza gauzatzea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiatzatze Atala	Datozen hilabeteetan

Hurrengo hilabeteetan helburu honetako jarduketa-ildo guztiak gauzatzea aurreikusten da.

Helburu hau gauzatu ahal izateko, hizkuntza-eskakizunen proposamenak behin betikoa izan

behar du. Lehen jarduketa-ildo hau garapenean dago, eta 2022ko lehen hilabeteetan gauzatuko da.

3. helburua. Behar diren neurriak hartzea, arreta euskaraz jasotzea eskatzen duten pertsonen arreta euskaraz eman dakien

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Hizkuntza irizpideen gida bat idaztea, herritarrei arreta bi hizkuntzetan emateko	EAPGZ	Garatzen ari da
Jardute-protokolo bat zehaztea, arreta elebidunerako hizkuntza-irizpideen gida aplikatzeko	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Gida nola jendearenganatuko den zehaztea	Departamentua	Datozen hilabeteetan

Euskarabidea aholku zerrenda bat prestatzen ari da, lehen erantzun presentzial edo/eta telefonozkoa emateko. Departamentuak hori ezagutarazteko protokolo bat egiten du.

4. helburua. Herritarrei idatzizko informazio elebiduna (digitala eta paper bidezkoa) e skaintzea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Itzulpen-beharren koordinazioaren eta idatzizko dokumentazioa analizatzearen ardura izanen duten pertsonak/unitateak izendatzea	Departamentua	Garatzen ari da
Gabeziak eta hutsak identifikatu eta lehentasunak ezartzea	Departamentua eta EAPGZ	Etengabe garatzen ari da
navarra.es atariaren arduradunarekin koordinatzea	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
navarra.es atarian ostatatuta ez dauden webekin lehentasunak ezartzea	Departamentua eta Itzulpen Zerbitzua	Garatzen ari da
navarra.es atarian ostatatuta ez dauden webetarako aurreikustea zein baldintza bete behar dituzten elebidunak izateko	Departamentua	Garatzen ari da
Departamentuaren aplikazioei buruzko lehentasunak ezartzea, elebidunak izan daitezen	Departamentua eta Itzulpen Zerbitzua	Garatzen ari da
Inprimaki eta formulario elebidunak eskaintzea	Departamentua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Izapideen fitxak ele bitan argitaratzeko prozedura	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Izapide-fitxa guztiak ele bitan argitaratzea	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Gardentasunaren Atarian argitaratzen denaren zirkuitua zehaztea	Gardentasunaren Ataria eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Itzulpen-eskaerak egiteko jarraibideak egitea	Departamentua eta Itzulpen Atala	Egina

Departamentuak sistema berri bat jarri du, Euskarabideak diseinatu, itzulpenak eskatu eta kudeatzeko. Zerbitzu bakoitzeko pertsona bat edo gehiago izendatu dira, eta horiek izanen dira eskaerak egiteko baimena dutenak; eta departamentuaren eskaera guztiez arduratzeko izendatu dira Herritarrentzako Arretaren Bulegoaren zenbait langile eta kontseilariaren kabineteko pertsona bat. Euskarabideak tresna informatiko bat eskuratu dio departamentuari, hura erabiltzeko jarraibideak jakinarazi dizkio eta prestakuntza eman die eskatzaileei.

Gardentasun Atarian argitaratzen denaren zirkuitua zehazteko garaian, lehentasuna eman zaie foru lege eta foru dekretuen aurreproiektu eta proiektuei. Horretarako, Gobernuaren Idazkari-tzako eta Araugintzako Zerbitzuak komunikatutako prozedura bat badago.

Gaur egun, pandemiaren inpaktua dela eta, lehentasuna eman zaio informazio digitalaren arloko jarduketak egiteari. Esparru horretan, Aurrerapen Digitalerako Zerbitzuak, hala eskatzen duten departamentuei, elebidunak izateko egokiak diren formatuetan eskaintzen dizkie webetarako eta aplikazioetarako euskarriak.

Kontuan hartuta lehentasuna eman zaiela informazio digitalaren arloko ekintzei, bi eremutan jardun dugu batez ere: web orriak eta izapideak.

Departamentua lanean ari da navarra.es Atariaren Atalarekin eta Euskarabidearekin batera, navarra.es-en ostatatuta zerbitzuak eta izapideak eskaintzen dituzten web orri propioen eta gaikako weben diagnostikoa egiteko eta ele bitan egon daitezen beharrezkoak diren ekintzak egiteko. Horrez gain, departamentua eta Euskarabidea navarra.es ataritik kanpo ostataturiko web propioen diagnostikoa egiten ari dira.

Arlo horretan egindako ekintza guztiek erantzuten diote herritarrengan eraginik handiena izatearen irizpideari.

1. Web orriak

1.1. Web orri propioak

Lehenik eta behin, web orri propioak identifikatu dira. Jarraian, haien hizkuntza-egoeraren diagnostikoa egin da. Aldi berean, web orrietara eramaten diren informazio fluxuak identifikatu dira, bai eta web orri horietan egiten diren jarduketan eta edizioen ardura duten pertsonak ere. Hori eginda dagoelarik, jardunerako protokolo bat taxutzen da departamentua, Euskarabidea eta, kasua

bada, weben arduradunak koordinaturik, edukien jarraipena, zuzenketa, itzulpena eta edizioa egite aldera.

Edozein ekintza egiteko orduan, lehentasuna ematen zaie herritarrengan inpaktu handiena dutenei.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren kasuan hauek dira identifikatutako web orri propioak:

- Otsagabiko eta Erronkarriko naturaren interpretazio zentroak

- Irunberriko arroileko, Bertizko eta Las Cañas natura-erreserbako natura parkeak, Pitillasko Aintzira, Centrofaunanavarra.es, yonolotiro.es eta reciclapp.navarra.es

- Espacionaturales.navarra.es

- lifenadapta.navarra.es

Horren hizkuntza-egoera honako hau da:

Orri gehienak ele bitan daude. Hala ere, horietako batzuk euskaratu eta eguneratu dira.

- Urbasa-Andia natura parkea: edukiak eta estekak eguneratu dira eta gaztelaniazko orrian sarturiko zenbait berri euskaratu dira.

- Otsagabiko naturaren interpretazio zentroa: euskarazko bertsioan estekak eguneratu dira.

- Espacionaturales.navarra.es: euskarazko bertsioan zenbait arazo tekniko antzeman dira, dagoeneko konponduta daudenak.

- Pitillasko Aintzaren orria ez dago euskaratuta, eta erabaki da orri hori berritzen denean euskaratuko dela.

1.2. Gaikako web orriak

Gaikako web orriak, izenak adierazten duen bezala, gaiei lotuta daude, eta ez departamentuei, zeren eta gaiak, orokorrean, egonkorak baitira eta departamentuak, berriz, legegintzalditik legegintzaldira alda baitaitezke. Esparru honetako lana, hala eta guztiz ere, departamentuekin egin da.

Gaikako weben kasuan, departamentua da edukiak sortzeko ardura duena, eta navarra.es Atariaren Atala, berriz, haren kudeaketaz arduratzen den unitatea da. Web horiek nahiko estatikoak dira, eta gaur egun berrikusiak, gaurkotuak eta

formatu berriz jantziak izaten ari dira. Modu koordinatuan lan egiten ari da departamentuaren, navarra.es Atariaren Atalaren eta Euskarabidearen artean, gaikako web horiek hobetzeko lanak (azala, izapideak eta beste web eduki batzuk barne) egiten direnean, web orri elebidunak sor daitezten.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren kasuan gaikako bi web nagusi daude departamentuarekin zerikusia dutenak: Nekazaritza eta Abeltzaintza, eta Ingurumena. Horietako bakoitzak bere azpigiak ditu eta egun ez daude eguneratuta. Navarra.es Atariaren Atala eta Euskarabidea lanean ari dira, eguneratze prozesua amaitzen denerako gaikako web hau elebiduna izan dadin.

2. Izapideak

Izapideei dagokienez, ikusi da badaudela denboran egonkorak diren izapideak eta epe jakin batzuk dituzten izapideak.

Lehentasunak ezarri dira jarduketa-irizpideetan, izapideak elebidunak izan daitezten, eta lanean hasi gara denboran egonkorak diren eta erabiltzaile gehien dituzten izapideak ere prestatzeko.

Horretarako, izapideen, sarrera kopuruaren eta izapide horiek editatzen dituzten pertsonen diagnostikoa egin da, eta, aurreko puntuan bezala, departamentuarekin, Euskarabidearekin eta navarra.es Atariaren Atalarekin lankidetzan ari gara.

Izapide egonkorren itzulpena egiteko protokolo bat taxutu da, eta izapide-editoreei prestakuntza ematen ari zaie, lan hori autonomiaz egin dezaten.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren kasuan 90 izapide inguru berrikusi dira, herritarren aldetik bisita-kopururik handiena dutenen artetik. Horietako heren bat jadanik euskaratuta bazegoen ere, euskaratzea edo eguneratzea behar duten 35 inguru identifikatu dira. Horretarako, 6 prestakuntza-saio egin dira Departamentuko zerbitzu eta atal ezberdinetako izapideen (on-line direnen eta/edo presentzialak direnen) editoreekin. Gaurko egunez 9 izapide euskaratu eta eguneratu dira, eta 25 izapide izapidetzeko eta argitaratzeko daude. Datozen hilabeteetan jarraituko dugu ildo horretan lan egiten.

5. helburua. Herritarrek artatzen diren espazio fisikoen errotulazioa eta informazio-elementu elebidunak (bulegoak, arretaguneak...): hizkuntza-paisaia

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Fitxa bat sortzea, jardun behar den tokietarako	EAPGZ	Egina
Fitxa osatzea jardun behar den tokietarako	Departamentua	Egina
Fitxa bat sortzea jardun behar den tokien diagnostikoa egiteko	EAPGZ	Egina
Diagnostikoa osatzea unitate bakoitzeko langileekin	Departamentua	Egina
Fitxa aztertzea, proposamena egiteko	EAPGZ	Egina
Itzulpen Atalera bidaltzea	Departamentua	Ez da beharrezkoa izan
Elementu berriak jartzea	Departamentua	Garatzen ari da
Lanpostu-identifikazioa taxutzea	EAPGZ	Egina
Lanpostuak identifikatzea	Departamentua	Egina

Hizkuntza paisaia

Errotulazio-txostena

Errotulazioaren gaineko txostena egin da, eta hizkuntza-paisaiari buruzko informazioa biltzeko erabili beharreko metodologia adostu dute Euskarabideko teknikariek eta departamentuko solaskideek. Horretarako, errotulazioaren argazkiak egin eta egoitza eta/edo lehentasunezko unitate bakoitzari dagozkion fitxak osatu dira. Horiek egiteko, aprobeztatu egin dira, kasu batzuetan, Euskarabideko teknikariek departamentuaren egoitzetara eginiko bisitak; eta, beste batzuetan, departamentuko pertsonak egin dituzte.

Txostena 2021eko ekainaren 22an aurkeztu zitzaion departamentuari.

Aipatu txostena egiteko, honako egoitza hauek aztertu dira:

- Departamentuaren egoitza nagusia Iruñean
- Eremu euskalduneko bulegoen egoitzak

Txostenetik ateratako datu orokorrak honako hauek dira:

Egoitzak ele bitan daude errotulatuak eta ez dira aipatzeko moduko gorabeherarik ikusten, estiloko gomendio txiki batzuk baino ez, berritzen direnean kontuan hartuko direnak.

Euskarabideari eskatu zitzaion eremu horretako bulegoen errotulazioari buruzko zein gai hone tan aplikatzekoa den araudiari buruzko aholkuak ematea, Eremuko bulegoen errotulazioa berritzen ari da, jasotako aholkuekin bat. Eremu euskalduneko zein eremu mistoko bulego guztiak ele bitan errotulatu dira.

Identifikatzaileak, pinak

Euskarabideak pinak eta mahai gaineko identifikatzaileak sortu ditu, eta departamentua hizkuntza-eskakizuna duten langileen eta eskatzen duten pertsonen artean horiek banatzen ari

da, herritarrek jakin ahal izan dezaten zein unitate-tan ematen den zerbitzu elebiduna.

6. helburua. Zerbitzu publikoak adjudikatzeko hizkuntza-irizpideak ezartzea.

Zerbitzu publiko horiek ematen dituzten enpresen diagnostikoa egiten ari da. Euskarabidea hizkuntza-irizpideak ezartzeko klausulen zerrenda bat prestatzen ari da.

Heldu den urtean garatuko da.

Bigarren galderaren erantzuna:

– Egin al da departamentuaren plantilla organikoan beharko liratekeen hizkuntza-eskakizunen zehaztapena? Hizkuntza plan berriaren arabera, zenbat lanpostutan ezarriko da profil elebiduna? Zein izanen da, guztira, departamentuan izanen diren lanpostu elebidunen portzentajea?

Lehen helburuari buruzko aurreko erantzunean zehazten den bezala, lanpostu-proposamenari buruzko txosten tekniko egin eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari bidali zaio.

Momentuz, ezin da lanpostuen proposamenari buruzko datu zehatzik eman, zeren eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoetako langile funtzionarioen eta estatutupekoen Negoziazio Mahai Orokorrean negoziazio kolektiboaren prozedura gauzatu behar baita, administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren zazpigarren xedapen gehigarriak ezartzen duen moduan. Prozesu hori datozen hilabeteetan egitea aurreikusi da.

Eman daitezkeen datuak plantillaren egungo egoerari buruzkoak dira. Egun departamentuak oinarriko 439 lanpostu dauzka, eta horietatik 10 dira elebidun; hau da, plantilla organikoaren % 2,27.

Iruñean, 2021eko urriaren 22an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

Galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Eskubide Sozialetako Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 13ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak galdera egin du Eskubide Sozialetako Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruz (10- 21/PES-00244). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Departamentuaren hizkuntza plana garatu baino lehen zenbait ekintza eta lan egin dira. Hona hemen:

Plan hori ezarri ahal izateko, 4. puntuan (Antolamendu-egitura eta jarraipena) zehaztutako jarraibideei jarraitu diegu.

Horretarako, departamentuak 2 teknikari eta departamentuaren hizkuntza planaren arduradun izanen den pertsona bat izendatu ditu.

Lehenengo bilera bat egin zen plana aurkezteko, eta, gero, zenbait bilera tekniko ere egin ziren departamentuak izendatutako pertsonen eta Eus-

karabideak hautatutakoaren artean, planaren garapenari eta ezarpenari buruzko aholku- eta akonpainamendu-lanak egiteko.

Departamentuaren eta Euskarabidearen artean etengabeko lankidetzat dago plana inplementatzeko.

Horretaz gainera, azarorako departamentuarekiko batzorde teknikoaren bilera bat programatuta da.

Departamentuaren hizkuntza planaren inplementazioan parte hartzen duten pertsonen prestakuntza jaso zuten 2020ko azaroaren 5ean.

Plana garatzeko, besteak beste honako unitate hauekin elkarlanean ari gara:

- Departamentua (planaren arduradunak, koordinazio-teknikariak, idazkaritza teknikoak, kabine-tea)
- Euskarabidea (Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua-Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua)
- Komunikazio Zerbitzua-Gobernuaren Eledunaren Bulegoa
- Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia

Zertan dago Eskubide Sozialetako Departamentuaren hizkuntza planaren garapena? Zein da departamentu honetan ezarritako sei helburuen baitan zehaztu diren jarduketak ildoetako bakoitza betetzeko epea?

Jarraian, honako hauek zehaztuko ditugu: hizkuntza-planaren jarduketak-ildoak, arduraduna eta ezarritako helburuen betetze-egoera.

1. helburua. Beharrezko den hizkuntza nahitaezkotasuna ezartzea lehentasunezko unitate organikoetan		
Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Lehentasunezko unitateak identifikatzea, derrigortasunari dagokionez	Departamentua eta Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua (EAPGZ)	Egina
Plantilla Organikoan sartu beharreko lanpostu elebidunen kopuruari buruzko txosten-proposamena egitea	EAPGZ eta FPZN	Egina
Balorazioa egin ondoren, txostena Funtzio Publikora igortzea, sindikatuekiko negoziazioa hasteko	Departamentua	Egina
Proposamena negoziatzea Funtzio Publikoaren Negoziazio Mahaian	Departamentua, Euskarabidea eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia	Datozen hilabeteetan
Sindikatuakiko negoziazioaren ondoren, hizkuntza-eskakizuna esleitu beharrekoa duten lanpostuak zehaztea	Departamentua, EAPGZ eta FPZN	Datozen hilabeteetan
Hizkuntza-eskakizuna esleituta daukaten lanpostuei buruzko txosten teknikoak egitea	EAPGZ	Datozen hilabeteetan
Txosten teknikoak aztertu ondoren, behin betiko onestea Plantilla Organikoan hizkuntza-eskakizuna eduki beharreko lanpostuak	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Lanpostuen proposamena Funtzio Publikora igortzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan

– Departamentuak, Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzuekin lankidetzan, derrigortasunari dagokionez lehentasunezkoak diren unitateak identifikatu ditu. Elebidun bilakatu beharreko lanpostuen lehen proposamena egitean honako hauek identifikatu ziren: 2020an proposatu zen lanpostu elebidunen bat izatea bi zuzendaritza nagusietan, ez baitzegoen batere, bi Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren ZNan, bat Oinarrizko Laguntzaren eta Gizarteratze-lanaren Zerbitzuan eta beste bat Diru-sarreraren Bermearen eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuan, eta beste bat Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZNan, Eraldaketa Digitala Bultzatzeko Zerbitzuan, horiexek baitziren batere gabeko unitateak; halaber, PAGNan (hiru lanpostu Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordeetan: Familiaren Atalean, Babesgabatasun Egoeren Baloraziokoan eta Zaintza eta Neurri Judizialenean), beste bat NEZen (lanpostu bat Lan Aktibazioan) eta beste bat Idazkaritza Tekniko Nagusian (lanpostu bat Erregistroan).

– Gerora Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiak lehentasunezko-tzat jo zuen lanpostu bat elebidun bilakatzea Errealitate Sozialaren Behatokiaren Zerbitzuko Plangintza, Ebaluazio eta Kalitate Atalean. Horretarako, aurretik plana aldatu behar izan zen, 2021eko ekainaren 15eko 157/2021 Foru Aginduaren bitartez,

Identifikatutako lehentasunezko unitateentzat departamentuak bere lanpostu-proposamena egin ondoren, proposamen hori EAPGZri bidali zaio aholku eman dezan eta lanpostuen egokitasuna egiaztatu dezan.

Gero lanpostu-proposamenaren gaineko txosten teknikoak egin dira eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiarri igorri zaizkio berrikusteko, 2021eko irailean.

Datozen hilabeteetan aurreikusita dago helburu horren jarduketa-ildo guztiak aurrera eramatea.

2. helburua. Lehentasunezko unitate organikoetara esleitutako departamentu-langileei euskarazko prestakuntza eskaintzea		
Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Prestakuntza Atalari hizkuntza-eskakizunen behin betiko proposamena igortzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atalari eskatzea Ikaskuntza eta Hobekuntza Plan bat taxutu dezan	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Hizkuntza-eskakizuna esleitu ez zaien langileen komunikazio-premiak aztertzea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan
Departamentuari ikaskuntza eta prestakuntza plan bat aurkeztea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan
Prestakuntza plana inplikaturako pertsonen beharren arabera egokitzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Plana onestea eta langileen prestakuntza hastea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Ikaskuntza eta prestakuntza gauzatzea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan

Helburu hau gauzatu ahal izateko, hizkuntza-eskakizunen proposamenak behin betikoa izan behar du. Lehen jarduketa-ildo hau garapenean dago, eta 2022ko lehen hilabeteetan gauzatuko da.

3. helburua. Behar diren neurriak hartzea, eskatzen duten pertsoneri arreta euskaraz eman dakien		
Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Hizkuntza-irizpideen gida bat idaztea, herritarrei arreta bi hizkuntzetan emateko	EAPGZ	Garatzen ari da
Jardute-protokolo bat zehaztea, arreta bi hizkuntzetan emateko hizkuntza-irizpideen gida aplikatzeko	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Gida nola jendearenganatuko den erabakitzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan

Euskarabidea aholku zerrenda bat prestatzen ari da, lehen erantzun presentzial edo/eta telefonozkoa emateko. Departamentuak hori ezagutarazteko protokolo bat eginen du.

Idazkaritza Tekniko Nagusiko Erregistro, Artxibo eta Informazio Bulegoan pertsona elebidun bat dago lanpostu elebidun batean, eta arreta euskaraz eskaintzen die hala eskatzen dutenei. Erregistroan beste bat edukitzea aurreikusten da 1. helburuarekin loturik aipatutako prozesua bukatzen denerako. Pertsona horiek arreta euskaraz eman dezaketela adierazten duten plastikozko euskarriak erabiltzen dira.

Posta elektronikoaren bidezko harremanetan herritarrak langile euskaldunei euskaraz zuzendu ahal izan daitezten, langile horiei “Nahi baduzu, nirekin euskaraz” logoa bidali zaie, mezu elektronikoetako sinaduraren ondoan jartzeko.

Telefono bidezko arretarako, kanporatutako zerbitzuaren kontratazioetan eskatzen da entitateko langileetatik batzuk euskaldunak izatea. Bi entitatek badituzte langile euskaldunak, eta deiak jasotzeko sistemak aukera ematen du arreta euskaraz jasotzeko.

4. helburua. Herritarrei idatzizko informazioa (digitala eta paper bidezkoa) ele bitan ematea		
Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Itzulpen-beharren koordinazioaren eta idatzizko dokumentazioa analizatzearen ardura izanzen duten pertsonak/unitateak izendatzea	Departamentua	Garatzen ari da
Gabeziak eta hutsak identifikatu eta lehentasunak ezartzea	Departamentua eta EAPGZ	Egina, garatzen ari da
navarra.es atariaren arduradunarekin koordinatzea	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Egina, garatzen ari da
navarra.es atarian ostatatuta ez dauden webekin lehentasunak ezartzea	Departamentua eta Itzulpen Zerbitzua	Egina
navarra.es atarian ostatatuta ez dauden webetarako aurreikustea zein baldintza bete behar dituzten elebidunak izateko	Departamentua	Garatzen ari da
Departamentuaren aplikazioak direla-eta lehentasunak ezartzea, elebidunak izan daitezten	Departamentua eta Itzulpen Zerbitzua	Garatzen ari da
Inprimaki eta formulario elebidunak eskaintzea	Departamentua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Izapideen fitxak ele bitan argitaratzeko prozedura	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Izapide-fitxa guztiak ele bitan argitaratzea	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Gardentasunaren Atarian argitaratzen denaren zirkuitua zehaztea	Gardentasunaren Ataria eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Itzulpen-eskaerak egiteko jarraibideak egitea	Departamentua eta Itzulpen Atala	Egina

Departamentuak sistema berri bat jarri du, Euskarabideak diseinatu, itzulpenak eskatu eta kudeatzeko. Zerbitzu bakoitzeko pertsona bat edo gehiago izendatu dira, eta horiek izanen dira eskaerak egiteko baimena dutenak; halaber, departamentuaren eskaera guztien arduraduna izendatu da. Euskarabideak tresna informatiko bat eskuratu du, hura erabiltzeko jarraibideak eman ditu, eta eskatzaileei prestakuntza eman die.

Gardentasun Atarian argitaratzen denaren zirkuitua zehazteko garaian, lehenetsuna eman zaie foru lege eta foru dekretuen aurreproiektu eta proiektuei. Horretarako, Gobernuaren Idazkaritzako eta Araugintzako Zerbitzuak komunikatutako prozedura bat badago.

Adibidez, onetsi aurretik euskaratu egin zen foru dekretu baten proiektua, zeinak arautzen baitu Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen sistemako egoitza-zerbitzuen, eguneko zerbitzuen eta zerbitzu anbulatorioen funtzionamendua adinekoen, desgaitasunaren, gaixotasun mentalaren eta gizareratze-lanaren alorrean, bai eta baimenen, aurretiazko komunikazioen eta homologazioen araubidea ere. Nafarroako Gobernuak bi hizkuntzetan onetsi zuen foru dekretu hori.

Halaber, jardunaldien kartelak eta aurkezpenak euskaratzea lehenetsi da. Halaxe egin da, esaterako, Pertsona Ardatz duen Arretari buruzko jardunaldian edota, orainsu, desgaitasunen bat duten pertsonen gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza emateari buruzko araudiaren erreformaz egin den jardunaldian.

Gaur egun, pandemiaren inpaktua dela eta, lehenetsuna eman zaio informazio digitalaren arloko jarduketak egiteari. Esparru horretan, Aurrerapen Digitalerako Zerbitzuak web eta aplikazioen euskarriak elebitasunerako formatu egokietan eskaintzen dizkie hala eskatzen duten departamentuei.

Kontuan hartuta lehenetsuna eman zaiela informazio digitalaren arloko ekintzei, bi eremutan jardun dugu batez ere: web orriak eta izapideak.

Departamentua lanean ari da navarra.es Atariaren Atalarekin eta Euskarabidearekin batera, navarra.es atarian ostatatuta zerbitzuak eta izapideak eskaintzen dituzten web orri propioen eta gaikako weben diagnostikoa egiteko eta ele bitan egon daitezkeen beharrezkoak diren ekintzak egiteko. Horrez gain, departamentua eta Euskarabidea navarra.es ataritik kanpo ostatatutako web propioen diagnostikoa egiten ari dira.

Arlo horretan egindako ekintza guztiek erantzuten diote herritarrengan eragin handiagoa izatearen irizpideari.

1. Web orriak

1.1. Web orri propioak

Lehenik eta behin, web orri propioak identifikatu dira. Jarraian, haien hizkuntza-egoeraren diagnostikoa egin da. Aldi berean, web orrietara eramateen diren informazio fluxuak identifikatu dira, bai eta web orri horietan egiten diren jarduketak eta edizioen arduradunak pertsonak ere. Hori eginda dagoelarik, jardunerako protokolo bat taxutzen da departamentua, Euskarabidea eta, kasu bada, weben arduradunak koordinaturik, edukien jarraipena, zuzenketa, itzulpena eta edizioa egite aldera.

Edozein ekintza egiteko orduan, lehenetsuna ematen zaie herritarrengan inpaktu handiena dutenei.

Eskubide Sozialetako Departamentuaren kasuan, honako hauek dira identifikatutako web orri propioak:

- Errealitate Sozialaren Behatokia.

Honako hau da haren hizkuntza egoera: web orriaren eduki finko osoa bi hizkuntzetan dago, "Errealitate Sozialaren Behatokia" atalean argitaratutako azterlanak izan ezik. Web orriaren arduradunek Euskarabidearekin bilera egin zuten, gaur egun erabili behar diren itzulpen-irizpideak zehazteko.

- Gainera, bada "Navarra Emprende" web orria, CEINek kudeatua eta Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuari lotua, eta gaztelaniaz dago.

1.2. Gaikako web orriak

Gaikako web orriak, izenak adierazten duen bezala, gaiei lotuta daude, eta ez departamentuei, zeren eta gaiak, orokorrean, egonkorak baitira eta departamentuak, berriz, legegintzalditik legegintzaldira alda baitaitezke. Esparru honetako lana, hala eta guztiz ere, departamentuekin egin da.

Gaikako web orrien kasuan, departamentua da edukiak sortzeko arduraduna, eta navarra.es Atariaren Atala, berriz, haren kudeaketaz arduratzen den unitatea da. Web horiek nahiko estatikoak dira, eta gaur egun berrikusiak, gaurkotuak eta formatu berriz jantziak izaten ari dira. Modu koordinatuan lan egiten ari da departamentuaren, navarra.es Atariaren Atalaren eta Euskarabidearen artean, gaikako web horiek hobetzeko lanak

(azala, izapideak eta beste web eduki batzuk barne) egiten direnean, web orri elebidunak sor daitezten.

Eskubide Sozialetako Departamentuak gaikako bi web orri ditu: Gizarte Gaiak eta Enplegua. Horien hizkuntza-egoera honako hau da:

- **Gizarte Gaiak:**

Gaikako web orria eguneratuta dago gaur egun, eta Euskarabidearekin eta Komunikazio Zerbitzua-Gobernuaren Eledunaren Bulegoarekin elkarlanean ari gara gaikako web hori euskaratzen. Eduki multzo handia daukan web orria da; departamentuak barnean hartzen dituen gai guztiak jasotzen ditu, bakoitza bere atalean. Orri nagusiak eta bigarren mailakoak ele bitan daude denak, eta gainerako orriak euskaratzen ari dira.

- **Enplegua**

Web orria gaztelaniaz eta eguneratu gabe dago, eta urtarrilerako eguneratzea aurreikusten da. Eguneratu gabe dagoenez, departamentua elkarlanean ari da Euskarabidearekin eta Komunikazio Zerbitzua-Eledunaren Bulegoarekin, web orria eguneratu eta aldi berean ele bitan jar dadin.

2. Izapideak

Izapideei dagokienez, ikusten ari da denboran egonkorra diren izapide batzuk badaudela, epe jakin batzuk badituztenak.

Jarduteko irizpideetan lehentasunak ezarri dira izapideak ele bikoak izan daitezten. Lanean hasi gara denboran egonkorra diren eta erabiltzaile gehien dituzten izapideetan.

Horretarako, izapideen, sarrera kopuruaren eta izapide horiek editatzen dituzten pertsonen diagnostikoa egin da, eta, aurreko puntuan bezala, lankidetzan ari dira departamentua, Euskarabidea eta navarra.es Atariaren Atala.

Protokolo bat sortu da izapide egonkorra euskaratzeko, eta izapideak editatzen dituzten pertsonen prestakuntza ematen ari zaie lan hori beren kabuz egiten joan daitezten.

Departamentuak 77 izapide ditu, guztira. Horietatik lau zeuden bi hizkuntzetan diagnostikoa egin zenean. Itzulpen prozesua hasi zenetik 12 izapide itzuli dira, eta beste 20 itzultzen ari dira. Laster 32 izapide egonen dira itzulita, eta Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko izapide guztiak datozen hilabeteetan itzultzeko asmoa dago, gero gainerako izapideak itzultzen jarraitzeko.

5. helburua. Herritarrak artatzen diren espazio fisikoen errotulazioa eta informazio-elementu elebidunak (bulegoak, arretaguneak...): hizkuntza-paisaia		
Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Fitxa bat sortzea jardun behar den tokietarako	EAPGZ	Egina
Fitxa osatzea jardun behar den tokiekin	Departamentua	Egina
Fitxa bat sortzea jardun behar den tokien diagnostikoa egiteko	EAPGZ	Egina
Diagnostikoa osatzea unitate bakoitzeko langileekin	Departamentua	Egina
Fitxa aztertzea proposamena egiteko	EAPGZ	Egina
Itzulpen Atalera bidaltzea	Departamentua	Ez da beharrezkoa izan
Elementu berriak jartzea	Departamentua	Egina, datozen hilabeteetan
Lanpostuen identifikazioa diseinatzea	EAPGZ	Egina
Lanpostuak identifikatzea	Departamentua	Egina, garatzen ari da

Hizkuntza-paisaia

Errotulazio-txostena

Errotulazioari buruzko txosten bat egin da. Hizkuntza-paisaiari buruzko informazioa biltzeko erabili beharreko metodologia adostu dute Euskarabideko teknikariek eta departamentuko solaskideek. Horretarako, errotulazioaren argazkiak egin eta egoitza eta/edo lehentasunezko unitate bakoitzari dagozkion fitxak osatu dira. Horiek egiteko, aprobetxatu egin dira, kasu batzuetan, Euskarabideko teknikariek departamentuaren egoitzetara eginiko bisitak; eta, beste batzuetan, departamentuko pertsonak egin dituzte.

Txostena 2021eko ekainaren 16an aurkeztu zaio departamentuari.

Aipatu txostena egiteko, honako egoitza hauek aztertu dira:

- Altsasuko Enplegu Agentzia
- Agoizko Enplegu Agentzia
- Doneztebeko Enplegu Agentzia
- 2. Zabalguneko Enplegu Agentzia
- Aingeruen Andre Maria Haur Eskola
- Balorazio Zentroa
- Departamentuaren egoitza nagusia

Txostenetik ateratako datu orokorrak honako hauek dira:

Egoitzetako errotulazioa ele bitan dago, salbu eta Doneztebeko Enplegu Agentzian, hor gaztelaniaz baitago, eta departamentuaren egoitza nagusiaren kanpoaldeko errotuluan. Errotulu hori gaztelaniaz dago, eta departamentuaren izen zaharra dauka.

Proposamen hauek egin dira txostenean:

Doneztebeko Enplegu Agentziako errotulazioa ele biko eredura aldatzea proposatu da. Era berean, departamentuaren egoitza nagusiko errotuluetako izenak eguneratu eta bidenabar ele bitan jarzea proposatu da. Departamentuak onartu egin ditu bi proposamenak.

Honako hauek dira egindako jarduketak eta egin beharrekoak:

Departamentuak bere egoitza nagusiko sarrerako kartela eguneratu du eta kartel berria jarri du. Doneztebeko Enplegu Agentzian obrak egin behar dira eta ez dira 2023ra arte amaituko; orduan egingen da aldaketa eta ele biko errotuluak jarriko dira.

Departamentuan euskararen presentzia sustatzeko bidean, halaber, langile berriei harrera egiteko gidan euskara jakitearen eta euskararekiko interesaren gaia erantsi da, bai eta hizkuntza planari eta haren ezaugarriari buruzko informazioa ere.

Gainera, departamentuaren intranetaren bitartez eta barneko beste baliabide batzuk erabiliz, Euskarabideak euskararen erabilera edo horren inguruko ezagutza sustatzeko abiarazitako ekinbideak zabaltzen lagundu dugu; besteak beste, Euskaraldia, edota "El euskera en Navarra: actitudes y oportunidades / Nafarroan euskararen aldeko jarrerak indartzeko aukerak" jardunaldia.

Identifikatzaileak, pinak

Euskarabideak pinak eta mahai gaineko identifikatzaileak sortu ditu, eta departamentua hizkuntza-eskakizuna duten langileen eta eskatzen duten pertsonen artean horiek banatzen ari da, herritarrek jakin ahal izan dezaten zein unitatean ematen den zerbitzu elebiduna.

6. helburua. Zerbitzu publikoak adjudikatzeo hizkuntza-irizpideak ezartzea

Euskarabidea diagnostikoa egiten ari zaie zerbitzu publiko horiek ematen dituzten enpresei. Heldu den urtean garatuko da.

Bien bitartean, hizkuntza-irizpideak erabiltzen jarraitzen dugu kontratuetako baldintza-agirietan edo itun sozialetako baldintzetan, kontratua edo ituna egiten duten entitateetako langileek arreta euskaraz emanen dutela bermatze aldera, herritarrek Administrazioari euskaraz zuzentzeko eta arreta euskaraz jasotzeko eskubidea duten eremuetan (adingabeak babesteko zerbitzuen itun soziala da azken adibidea).

Egin al da departamentuaren plantilla organikoan beharko liritekeen hizkuntza-eskakizunen zehaztapena? Hizkuntza plan berriaren arabera, zenbat lanpostutan ezarriko da profil elebiduna? Zein izanen da, guztira, departamentuan izanen diren lanpostu elebidunen portzentajea?

Lehen helburuari buruzko erantzunean esan den bezala, lanpostu-proposamenaren gaineko txosten teknikoa egin eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari bidali zaio.

Momentuz, ezin da lanpostuen proposamenari buruzko datu zehatzik eman, zeren eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoetako langile funtzionarioen eta estatutupekoen Negoziazio Mahai Orokorrean negoziazio kolektiboaren prozedura gauzatu behar baita, administrazio publikoetan euskararen

erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren zazpigarren xedapen gehigarriak ezartzen duen moduan. Prozesu hori datozen hilabeteetan egitea aurreikusi da.

Eman daitezkeen datuak plantillaren egungo egoerari buruzkoak dira. Departamentuak oinarriko 819 lanpostu ditu eta horietatik 17 dira elebidunak, hau da, plantilla organikoaren % 2,1. Departamentuak proposatu du % 41,2ra igotzea lanpostu elebidunen kopurua. Horrenbestez lanpostu elebidunen bat izanen da departamentuko

unitate guztietan zuzendaritza nagusiaren mailan edo erakunde autonomoetako maila baliokidean, eta jendearentzako arretako lanpostuak indartu egingen dira Erregistroko lanpostuetako bat elebidun bilakatuz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ezarri zenetik Nafarroak ustez izan duen aurrezki garbiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ezarri zenetik Nafarroak ustez izan duen aurrezki garbiari buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 13ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ezarri zenetik Nafarroak ustez izan duen aurrezki garbiari buruz (10-21/PES-00245). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera 2020an jarri zen martxan. Urte horrextarako zehaztu behar da 2020-2024 bosturtekoko oinarrizko ekarpena. Ekitaldi horretan Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatu gabe zeuden Estatuaren eginkizun eta zerbitzuak. Beraz, Estatuako Aurrekontu Orokorre-

tan prestazio horiek finantzatzeko ezarritako zuzkidurak Nafarroak bere gain hartu gabeko kargatzat jo behar lirateke. Baina oraindik ez da erabaki oinarri-urte horri dagokion ekarpena.

Hala ere, esan beharra dago Nafarroak Estatu-ko karga orokorretarako egin beharreko ekarpenaren zenbatekoa honela zehazten dela, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legearen 53. artikuluari jarraituz: egozpen indizea aplikatzen zaio Foru Komunitateak bere gain hartu gabeko Estatu-ko kargen eta dagozkien konpentsazioen guttizko zenbatekoari. Hortaz, konpentsazioen eraginez eta Estatu-ko Aurrekontu Orokorretako diru-sarreraren loturarik ezaren ondorioz, ekarpen likidoa diru kopuru zati-tugabe bat da, ordainketa garbi batez bideratzen dena, izanen duen xede zehatza identifikatu gabe.

Aurrean esandakoagatik, ezin da zehaztu eskatutako zenbatekoa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako hautatu beharreko kide bat izendatzea.

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko azaroaren 11n egindako Osoko Bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Alfonso Antoñanzas Aranguren jauna izendatzea Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako hautatu beharreko kide gisa.

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
